


'KID A': Aro nahasgarri baten soinu-banda korapilatsua

Steven Hyden musika-kritikari iparamerikarrak entsegu zorrotza eskaini dio Radiohead taldearen disko esanguratsuari, orain gazteleraz irakurri daitekeena Liburuak argitaletxearen eskutik



buruz mintzatu zen arte, *Street Spirit* kantua George W. Bush-i eskaini ziola, "III Mundu Gerrari hasiera emango ez dion itxaropenaz".

Internet eta industria musikala

Aro berri baten atarian, *KID A* interneten bitartez esperimentatu zen estreinako rock disko handia dugu, sarean bertan filtratu bazen ere. Orduan, internet *freak* eta "arraroen" babesleku zen; orain, "bertatik ihes egin nahi duzu", damutu da entsegu honen autorea.

Radiohead-en zigiluak, Capitol diskoetxe ospetsuak, kanpaina digital berritzaile samarra jarri zuen abian: iBlip izeneko musika-errepuzitzailea bide, *KID A* streaming-erantzun zitekeen. "Blog txikiak nahiz *Rolling Stone*-k edo *MTV*-k sarbide bera zuten urteko diskorik irrikatuenera", nabarmendu du. 2000ko urrian argitaratu baino lehen, 400.000 aldiz erreproduzitu zen.

Zazpi urte ondoren, *In Rainbows* lana kaleratu zutenean, "ordaindu gura duzuna" estrategiarik alde egin zuten. Ez zitzaizkion guztiz txarto joan, baina urte horretan, 2007an, Spotify-k hankaz gora jarri zuen internet eta oro har musika kontsumitzeko molde guztiak. "*KID A*-ren garaian, Radiohead interneteko abangoardia zen. Spotify-rekin, baina, erresistentzia bilakatu zen", kontrajarri du.

Dena aurka, 'Creep' barne

Radiohead 90 urte hasieran azaldu zen, "oinarriko rock gitarra eta *brit-pop* berriaren artean", Hyden-en hitzetan. *Creep* abestia bere lehen *hit*-a izan zen, hamarkada osoa kantu horrek definitu zuela, harik eta Yorkek eta bereak gorrotatu zuten arte. AEB-etan izan zuen arrakasta lehen-dabizi -1993an *Pablo Honey* urrezko diskoa izendatu zuten-, ez etxean ordea. Erresuma Batuan, Suede gisako taldeak gailentzen ziren, ondoren Oasis *brit-pop*aren enbaxadore bihurtuko zela. Radiohead ez zettorren bat bere garaikideekin. Hyden-ek bestelako analogiak aztertu ditu Radiohead eta beste taldeen artean, U2 edo Coldplay, kasu. Baita zinemarekin ere: *Vanilla Sky* eta bereziki *Fight Club* filmen erlazioa *KID A* diskoarekin interesgarria da oso. Finean, "garai nahasgarrientzako obra nahasgarriak" direla amankomunean dute.

"Ezinezkoa, gogaikarria eta autosuntsitzailea. Horixe da Radiohead-en bide bakarra". Steven Hyden-ek holaxe ondorioztatu du Thom Yorke-k buru duen talde britainiarren ibilbidea, *This isn't happening. Radiohead's KID A and the beginning of the 21st century* liburuan. Berriki gaztelanira ekarri du Aixa de la Cruz idazle eta itzultzaileak, Last Tour-ren Liburuak argitaletxearen esku.

Hyden musika-kritikari estatubatuarra Radiohead-en *KID A* lan esanguratsua du beraz abiapuntu, "obsesio" eta helmuga. Aipatu diskoa 2000 urtean kaleratu zen, hots, mende, politika, gizarte eta kultura aldaketaren

inflexio-puntu kritikoan. "2000 efektua" zeritzon antsietatetik zettorren *KID A*, hots, mende aldatuak ustez ekarriko zuen anabarsaren beldurretik -azaldu du Hyden-ek-; '2000 efektua' apokalipsirik eragin ez bazuen ere, kalteberatasun nahiz zapalkuntza sentimendu sakonak sorrarazi zituen, teknologiaren menpe zentzueraino bizi ginen frogatu baitzuen", gaineratu du.

Egilearen ustez, *KID A* ez da XXI. mendeko eragin handienerako diskoa, ezta salduena, are gutxiago zaleen gustukoena ere. Baina, "eztabaida eta moda oro gailentzen ditu, ordezkatzen duena musika bera gailentzen du eta", dio. Horrek azaldu lezake,

hegin batean, zergatik bi hamarkada ondoren, "disko berritzaile izaten jarraitzen duen".

2000 urte amaieran, kritikak hamarkadako LP-rik onenaren ospea aitortu zion. *Alta*, albuma atera zenean, bat baino gehiago zur eta lur geratu zen entzundakoarekin. Ezaguna zuten rock-az haratago joan baitzen Radiohead; elektronika, soinu esperimentala eta ustez inongo zentzurik ez zuten letekin puzzle nahasgarria eratuz. Bob Sheffield kritikariak zorrotz agertu duenez, "orain inork ez du aitortuko zentzueraino gorroto zuten *KID A*; Bob Dylan gitarra elektrikorik pasatu zenean 'Judas!' deitu zion inork onartu ez zuten le-

gez. Inork ez du izan nahi ergel hori".

Ideologia baino, inkongruentzia hutsa

Hyden-en aburuz, lanak ez du ideologiarik aldarrikatzen, "inkongruentzia sorta hutsa baizik, politikoa dirudien arren", alegia: "Albuma entzuten duzunean, sendabiderik ez duen antsietatea sentitzen duzu; gizatasuna bera, mugarik gabeko informazioa eta irtenbiderik ezako garaian". 9/11 atentatuak gertatu zirenean, Radiohead Berlinen zen, *KID A*-ri jarraitu zion *Amnesiac* diskoaren bira amaieran. "*Shock*-ean aritu ziren oholtza gainean; Yorke gertatutakoari

'¡El miedo acecha al territorio!': Un libro de miscelánea "para su censura"

"La música pop es la gran disciplina artística en la que el público está entrenado para no esperar una estructura narrativa lineal. Las canciones pueden significar cualquier cosa, todo o nada. Depende del oyente. El significado debe emanar del público". Tal vez esta reflexión de Steven Hyden, autor del libro *Esto no está pasando. El KID A de Radiohead y el comienzo del siglo XXI* (Hachette, 2020/Liburuak, 2022), ayude

a entender el "libro de miscelánea" que firman Thom Yorke, líder de Radiohead, y Stanley Donwood, artista gráfico y escritor, además de autor de las portadas de Radiohead desde 1994. *Fear stalks the Land!* (*¡El miedo acecha al territorio!*, editado por Sexto Piso este año, con traducción de Esther Villardón) es una colección de notas, poemas, ilustraciones, ideas inconexas y letras de canciones, como las del disco *KID A*, con la apostilla "letras del

KID A para su censura". También aparece un listado de "ejemplos seleccionados de derretimiento de hielo de todo el mundo, alrededor de 1999", o datos curiosos como el que recoge el poema *Te llamé, pero no estabas*: "3.089.240 mujeres se dieron cuenta de que estaban atrapadas en relaciones sin amor; 3.002.783 hombres". Curiosa miscelánea. Se recomienda mente abierta y lectura no lineal. Nada lineal...